



EREÑOTZU UDAZKEN KULTURALA

Elikadura osasungarriaz gaur, Idoia Larrañaga

Arratsaldeko 19:00etan emango du hitzaldia Idoia Larrañagak. Bihar, berriz, 19:30etan, 'Mundua bizikletaz Asian' ezagutu ahal izango da. Asteburuan ekitaldi gehiago izango dira.

HITZALDIA emango du gaur, Udazken Kulturalaren barruan, Idoia Larrañagak: *Elikaduraren eragina osasunean*. 19:00etan izango da.

Bihar, berriz, Ainara Perez de Nanclares eta Koldo Zubizarretak *Mundua bizikletaz Asian* erakusketa jarriko dute, 19:30etan, bizi izan duten esperientzia kontatzeko.

Bestalde, ostiralean, pelikula bat jarriko dute 22:00etan, eta larunbatean umeentzako ikuskizuna izango da frontoian, 11:30etan, Florentino Galdinorekin.

Bertso afarirako eta Sarako irteerarako txartelak salgai Ekintza gehiago ere izango dira. Asteazkenean, *Ereñotzu inguruko historia, toponimia eta saroiak* hitzaldia emango du Luis Mari Zalduak.

Bestalde, txartelak salgai daude Ur Mian eta Irrintzin, 25 euroan, azaroak 1eko bertso-afarirako. Maialen Lujanbio eta Unai Agirre izango dira.

Azken ekintza azaroak 8ko irteera izango da, Sarako

kobazuloetara. Txartelak Auzo Udalean daude salgai.

100 kilo gaztain, igandean Asteburuan giro ederra izan zen Ereñotzun. Larunbatean Zepadiko putzuaren urteurrena ospatu zuten, eta igandean azoka egin zen. 100 kilo gaztain erre zituzten. Patata-tortilla lehiaketa, berriz, Mila Zabaletak irabazi zuen. ||



Diplomak jaso zituzten, Zepadin egindako lanagatik.



Giro ederra eta jendea barra-barra izan zen igandean, Ereñotzuko azokan.

ARGAZKI RALLYA

Gaurkoa azken eguna, argazkiak entregatzeko

Foto Forum Hernanik Argazki Rallyaren VIII. edizioa antolatatu zuen igandean, eta inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren: 57. Gaur arteko epea dute, egindako argazkietatik 6 aurkezteko.

IGANDEKO Argazki Rallyan parte hartu zuten 57 argazkilariek gaur dute azken eguna, egindako argazkien artean 6 aukeratu eta lehiaketara aur-

kezteko. Bihartik aurrera, berriz, Biterin ikusi ahal izango dira, 19:00etatik aurrera, pasilloan. Epaimahaiak azaroaren 7an banatuko ditu sariak.

Parte hartze haundia Antolatzaileek azaldu dute inoiz baino argazkilaria gehiagok hartu duela parte. Guztira, 57k; 45 helduk eta 12 umek.

Txoko guztietatik etorri dira: Barakaldo, Azpeiti, Zumaia, Zalla... Horien artean 7 sari banatuko dira; 4 helduen mailan, eta 3 umeenean. ||

HERNANI ERABAKI

Etxeberri auzoan bilera, gaur

Auzo auzo bilerak egiten ari dira datorren urteko aurrekontu partehartzaileetan zein proiektu sartu erabakitzeko. Gaur Etxeberri-ningo da, 19:00etan, eta bihar, Zikuñagan. Haurtzaindegi zerbitzua izango da. ||

TXANTXILLA

Festetarako prestatzeko azken egunak

Gaurkoa da azken eguna larunbatean Txantxillan egingo den herri bazkarirako txartelak erosteko. Txantxillako kafetegian daude salgai: helduek 11 euro, eta umeek 5 euro (zeliakoentzako egokia izango da menua). Bestalde, gaurkoa da azken eguna, baita ere, Santa Barbararako iguera krossean izena emateko, www.kirolprobak.com webgunean. Bestela, lbaimendin edo egunean bertan ere eman ahal izango da izena. Azkenik, auzotarrei dei egin diete balkoiak apaintzeko. Horretarako, eskuz egindako banderatoak salgai daude Lekuona okindegian. ||

ERAKUSKETA

Indiako argazkiak gaur arte

Gaurkoa da azken eguna foto-eskolak Biterin jarri dituen Indiako argazkiak ikusteko. ||

HERNANIN' MUSIK

Sarrerak salgai, Neighbor ikusteko

Hilaren 31n berriro ere aukera izango da Maite Larburuk eta Josh Cheathamek osatutako bikoteak eskainitako musika emanaldia ikusteko, 20:00etan Biterin. Sarrerak salgai daude Biterin, 7 euroan. ||

ANTZERKIA

Ikuskizuna larunbatean

Bost urtetik gorako umeentzako *Antzokiko istorioak* antzerkia izango da larunbatean, 11:00etan, Biterin. Sarrerak 2,70 euro balio ditu. ||

		KRONIKA-DOBERAKO LAGUNTZAILE KANPAINA	
IZEN-ABIZENAK:	HELBIDEA:	LAGUNTZA: <input type="checkbox"/> 6 € (38 urtetik beherakoak)	
TELEFONOA:	HELBIDE ELEKTRONIKOA:	<input type="checkbox"/> 35 €	
LAGUNTZA EMATEKO MODUAK:		<input type="checkbox"/> €	
1. K. K. zenbakia eman:		* Ordainketa zatika egin nahi izanez gero, Doberan galdetu (943 33 27 99)	
2. Dirua ingresatu (izen-abizenak jarri):		* Laguntzaile bezala izena emandakoan zuzenean Doberako Bazkide egingo zara.	
2095 5041 12 1062292601 (Kutxabank) / 3035 0025 81 0250077672 (Laboral Kutxa)		* Jakinarazten dizugu, izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren xedera, harreman honetan dauden izaera pertsonaleko datuak Dobera Euskara Elkartearen arduraduntzat duen fitxategi elektronikoko batean daudela, helburu administratibotarako.	
3. Doberako bulegoan eskura (Larramendi II, behea, Hernani)			

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Etxebeste Elcano 2 943 552087 • Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA **GAUR** Temperatura dezente jaitsiko da. Goizean oraindik euria egin lezake, baina atertzeraz egingo du eta lainoak desagertu egingo dira arratsalderako. Min.12°/Max.16°
BIHAR Giro eguzkitsua izango da nagusi. Ekialdeko haize ahula ibiliko da. Zerua garbi egongo da, eta gauean hoztu egingo du. Min.6°/Max.18° (euskalmet)

ERREMONTA BINAKAKO TXAPELKETA



Sei bikotek jokatu dute txapelketa, tartean, Endika Barrenetxeak, Zeberio Ilrekin.



Mundu mailako kongresuan bildu ziren ordezkarien Hernanin izan ziren.

ZERO ZABOR

Elkarlanean, Zero Zaborren alde

Mundu mailako Zero Zabor ordezkarien kongresua egin da orain gutxi Donostian, eta lehengo astean Hernanin izan ziren, bertako konpostaje sistema eta Atez Ateko bilketa sistema ezagutzeko. Guztiak elkarlanean Zero Zaborren alde ari direla adierazi zuten bisita bukatzean, berrerabilitako telekin egindako kartelarekin. ||

15 partidu bihartik hasita, final erdietara iritsi arte

Finala abenduaren 20an jokatu da, eta ligilla bihar hasiko da: Barrenetxea IVk jokatu du.

ASTEARTEAN aurkeztu zuten, Galarretan, 44. Binakako Erremonte Txapelketa Nagusia. Sei bikote ariko dira txapela lortzeko lehian, bihar hasi eta abenduaren 20ra bitartean.

Denak denek kontra, ligillan

Finalerdietara zein bikote sailkatuko diren jakiteko ligilla bat jokatu da aurretik. Bihar bertan jokatu da lehenengo partidua, eta Barrenetxea IV hernaniarra ariko da, Zeberio Ilrekin, Urriza eta Agirrezabalaren kontra. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da Galarretako jaialdia, eta bigarren partidua izango da Txapelketakoa.

Txapelketan ariko diren gainontzeko lau bikoteak dira: Uterga-Endika; Etxeberria IV-Etxeberria III; Ezkurra-Ion; eta Ezkurra II-San Miguel.

Ligilla azaroaren 22ra arte jokatu da; ostegunetan partidu bat eta larunbatetan bi. Puntuak lortzeko modua, berriz, lehengo urtekoaren berdina izango da: 40 tanto egiten dituenak, 4 puntu; 36-39 tanto artean egiten dituenak, 2 puntu; 32-35 tanto artean eginda, 1 puntu; eta 31 tanto edo gutxiago lortzen dituenak, punturik ez.

Sei bikotereren artean dago jokoan aurtengo Binakako txapela.

Bi finalerdi

Finalerdietara pasako dira ligillan lehenengo lau postuetan gelditzen diren bikoteak. Ondoren, hauek bi finalerdi jokatu dituzte.

Batetik, lehenengo semifinalen elkarren kontra ariko dira lehenengo sailkatua eta azkenekoa, eta bigarrena eta hirugarrena. Bigarren finalerdia ere berdina egingo da. Horrela, hiru partidutako onenak sailkatuko dira finalerako.

Finala, abenduaren 20an

Final haundia abenduaren 20an jokatu da: lehenengo finalerdiko bikote irabazlea, bigarren finalerdiko irabazlearen kontra.

Lehia martxan dago, baina ezer gutxi dago argi. Jakin daitekeen gauza bakarra da, aurtengo bikote irabazlea ez dela lehenengo urtekoa izango. Izan ere, Utergak Endikarekin jokatu du aurten, eta Ionek, berriz, Ezkurrearekin. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

3. FASEA www.garraioahobetzen.net

herriarrek martxan en marcha

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

Informazio gehiago: www.garraioahobetzen.net

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

Urriak 22, Hernanin, Biteri kultur etxean, 18:30ean